



By Jose Goitia

Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2023ko irailaren 12a

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

Joseba Sarrionandia

(Iurreta, Bizkaia, 1958)

Joseba Sarrionandia Uribelarrea euskal idazlea da. Euskal Filologian lizentziatu zen Bilboko Deustuko Unibertsitatean, eta euskara irakasle lan egin zuen. Bergarako UNEDen fonetika irakasle izan zen eta Udako Euskal Unibertsitatean ere parte hartu zuen. **Zeruko Argia**, **Anaitasuna**, **Jakin** eta **Oh! Euzkadi** aldizkarietan eman zituen argitara bere lehen lanak, eta **Pott Bandako** kideetako bat izan zen, Bernardo Atxaga, Manu Ertzilla, Ruper Ordorika, Jon Juaristi, Joxe Mari Iturralde eta beste hainbat idazlerekin batera. Euskaltzain urgazlea, Ibaizabal aldizkariaren sortzaileetako bat ere izan zen. Lan originalez gain, literatura unibertsaleko autoreak euskaratu ditu, batez ere ingelesezko literaturakoak, tartean Samuel Taylor Coleridgeen *The Rime of the Ancient Mariner* (Marinel zaharraren balada) poema narratibo luzea, poesia erromantikoaren gailurretako bat. Hainbat idazleren lanak ere itzuli ditu, tartean T. S. Eliot, Manuel Bandeira edo Fernando Pessoa.

1980an, ETAko kidea zela eta, Espainiako poliziak atxilotu eta 27 urteko espetxe zigorra ezarri zioten. Bere obran hala adierazita, zortzi egunez torturatu zuten atxiloaldi luze horretan. Harrezkero, preso izatearen errealitatea bere obran hainbat aldiz azaldu du. Urte hartan hainbat literatura-sari irabazi zituen. 1981ean **Izuen gordelekuetan barrena** lehenengo poema-bilduma argitaratu zuen. Liburuak oihartzun handia izan zuen, eta biziki eragin zien euskal idazle berriei; izan ere, **Bitakora kaiera** lehen poema manifestutzat ere hartu zuten.

1985eko San Fermin egunean ihes egitea lortu zuen, Martuteneko espetxearen barruan Imanol kantariak emandako kontzertu baten aukera baliatuz, Iñaki Pikabea presoarekin batera bozgorailu batean ostenduta. Gertaera haren omenez Kortatu taldeak **Sarri, Sarri** kanta ospetsua egin zuen. Iheslari bizi izan zen (Espainiako legeen arabera, haren delituek preskribatu bazuten ere) eta, hain zuzen, iheslari erbesteratuarena izan da haren obraren beste gai nagusia, Lagun Izoztua eleberrian, esate baterako, ikus daitekeen moduan. Klandestinitatean bizi izan arren, liburuak argitaratzen segitu zuen eta hainbat musikarirekin elkarlanean aritu zen: Mikel Laboa, Ruper Ordorika, Fermin Muguruza eta beste musikari askori helarazi zizkien bere poemak gutunen bidez Esan Ozenki eta Txalaparta diskoetxeek elkarlanean **Hau da ene ondasun guzia** disko-liburua argitaratu zuten, idazlearen poema musikatuekin.

2011ko urrian Eusko Jaurlaritzak euskarazko saiakeraren Euskadi Literatura Saria eman zion ***Moroak gara behelaino artean?*** liburuari esker, baina sariari dagokion dirua atxiki egingo zuela jakinarazi zuen justiziaren aurrean bere egoera erregularizatu artean. Espainiako Auzitegi Nazionalaren Fiskaltzak auzirik ez zuela esan zuenean, diru saria eman zioten

2016ko azaroaren hasieran, Etxepare Euskal Institutuak Habanako Unibertsitatean (Kuba) euskal irakurle izendatu zuen Sarrionandia, hautaketa prozesu zorrotz baten ostean, eta orduantxe jakin zen Habanan urte batzuk zeramatzala. Eta handik egun gutxira, azaroaren 20an, 31 urtean lehen aldiz, haren argazki eguneratu bat argitaratu zen, Euskal Herriko lau agerkaritan (ZuZeu, Berria, Gara eta Noticias taldea) batera plazaratutako elkarrizketa batean; Jose Goitia kazetariak bi egun lehenago egin zituen hala argazkiak nola elkarrizketa.

2021eko apirilaren 19tik geroztik, Joseba Sarrionandia Euskal Herrian da.

2022an Ares kubatar ilustratzaile ospetsuarekin Munduari bira eman zion ontzia ipuin ilustratua argitaratu zuen.

Ines Osinagarekin 2022an hasi zen «Olatu arteko txalupa arraroa» kontzertu ikuskizuna eskaintzen herri herri.

Lagun izoztua

LAGUN IZOZTUA

JOSEBA SARRIONANDIA



Oroimena eta hitza galdu ditu Goiok, “izoztuta” geratu da Bluefieldsgo bere erbestean, eta hari laguntzera doa Maribel, errefuxiatuen postaria; Ekuadorra eraman nahiko du sendatzera, han bizi baita paper faltsuekin Andoni, Goioren ikaskide izandakoa, baina bidaia ez da inondik ere erraza.

Abiapuntu horrekin, hiru narrazio-hari josten dira kontrapuntuan: Maribelek Goioren gaixotasunaren eta laguntzen dien Urioste familiaren kronika egiten du, orainaldian; Andonik, berriz, 14 urte zituela Goiorekin batera Kalaportuko jesuitenean igarotako ikasturtea oroituko du; eta narratzaile orojakile batek geroaldian kontaktu edo iragarriko digu nola Goio, sendatu ostean, Antartikara doan espedizio zientifiko batean.

Managuan, etxetik irten ezinik bizi da Armando —benetako izenez Josu—, Maribelen senarra. Ogia egiten ari ez bada idazmakinarean aurrean ematen du eguna, tip tip tap tip top, itxuraz sekula amaitzen ez den nobela zirriborratzen. Bera dugu egiazki istorio hauen guztien

asmatzailea: bera bezalako jendemodu deserrotua barrendik ezagutu nahi du, ez leku batean ez bestean bizi ezinaren esperientzian arakatu, denborak denoi egiten dizkigun zauri eta tolesdurak erakutsi, Maribelekiko maitasunaren itzaltzea esplikatuko edo besterik ezean imajinatu.

Gai, garai eta gertaleku ugariako eleberria dugu Lagun izoztua, baina, iceberg baten antzera, askoz gehiago da sujeritzen zaiguna, irakurlearen gogoan izotz blokeen moduan noraezean geratuko den sentipen, ideia eta irudien mundu irudimenezko eta hala ere erreala.

Joseba Sarrionandiaren argitalpenak

Poesia

Izuen gordelekuetan barrena (1981)

Intxaur azal baten barruan. Eguberri amarauna (1983)

Marinel zaharrak (1987) **P SAR**

Gartzelako poemak (1992)

Hnuy illa nyha majah yahoo (poemak 1985-1995) (1995)

Hau da ene ondasun guzia (1999) **CD 098 SAR**

XX. mendeko poesia kaierak: Joseba Sarrionandia (2002)

Hilda dago poesia? (2016)

Gure oroitzapenak (2018)

Narrazioa

Narrazioak (1983)

Atabala eta euria (1986)

Ifar aldeko orduak (1990)

Han izanik hona naiz (1992)

Miopeak, bizikletak eta beste langabetu batzuk (1995)

Lagun izoztua (2001) **N SAR**

Kolosala izango da (2003)

Narrazio guztiak (1979-1990) (2011)

Herejeen alaba. Ander Berrojalbiz eta Joseba Sarrionandia. (2017)

Saiakera

Ni ez naiz hemengoa (1985)

Marginalia (1988) **N SAR**

Ez gara gure baitakoak (1989) **N SAR**

Hitzen ondoeza (1997) **M SAR**

Akordatzen (2004)

Moroak gara behelaino artean? (2010)

Lapur banden etika ala politika (2015)

Bizitza ez al da oso arriskutsua? (2018)

Airea ez da debalde: Habanako gaukaria (2019)

Gauzak direna balira: (Habanako gaukaria) (2020)

Haur literatura

Izeba Mariasunen ipuinak (1989)

Ainhoari gutunak (1990)

Harrapatutako txorien hegialak (2005)

Gau ilunekoak (2008)

Munduko zazpi herrialdetako ipuinak (2008)

Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako (2010)

Munduari bira eman zion ontzia ipuin ilustratua (2022)

Kritikak esandakoak

“...Eleberri mardul batekin etorri zaigu oraingoan Sarrionandia. Haren arnasa laburreko lanen maitaleek, ordea, ez dezatela pentsa ito egingo direnik Lagun izoztua hau irakurtzean. Arnasa beti arnasa, erritmoa da garrantzitsuena horretarako lan orotan, eta erritmo egokia paratu dio iurretarrak lan honi ere. Plano, denbora eta narratzailearen aldaketa erritmikoek irakurlearen arreta mantentzen dute liburu osoan. Horrela, Goio Gorria pertsonaia nagusiaren gaztetxo garaiak ezagutuko ditugu Kalaportun, haren jaioterrian. Eskola, etxea eta itsasoaren artean ematen du garai hori Goio, lagunak aldamenean dituela. Inizioazio bidaia baten hastapenak ditu horiek Goio. Lehen maitemintzea ere Kalaportun ezagutuko du. Eta Goio Gorria pertsonaia helduago ezagutuko dugu, erbesteratua eta izoztua, urtze prozesuan. Eta maitasuna beste behin. Eta Goio Gorria Antartidarainoko bidaia luze bezain izotzez betean zurtasunaren tonalitateak ikasten ikusiko dugu, itsas animalien odolaren Sinesgarritasuna

Eta Goio pertsonaia maitagarria da aro guztietan. Maitagarria, sinesgarria egiten den aldetik, eta sinesgarritasun horrek ematen dion gizatasunaren ederrarengatik. Ez pentsa, hala ere, liburuan sinesgarritasuna duen bakarra pertsonaia hori denik. Euskal Herritik alde egin eta Kolonbian ezarritako euskaldun zaharra bera ere, irakurleak ezagutzen duenerako hilik egon arren, sinesgarri egiten dute haren oinordekoen hitzek, bizimoduak. Euskaldun diasporaren paradoxa, erbestean bizi diren euskal herritar gazteagoen paradoxaren alboan paratua.

Paradoxok ez dira berriak Sarrionandiaren idazlanetan, ezta ere liburu honetan ageri dituen umorea, gogoetarako gaitasuna, naturarekiko miresmena, herri ezezagunekiko eta zapalduenekiko sentzibiltasuna eta jardun erraz eta aldi berean sofistikatua. Osagarriok emateko antolatua duen egitura zaigu berria batez ere. Izan ere, bere lumaren ohiko ezaugarriak ez ditu galdu inolaz ere Sarrionandiak.

Gu eta gu ez beste animalien artean paralelismoak egitean eta naturaren pertzepzioa adierazten lortzen du Sarrionandiak, ene iduriko, indarrak gehien. Horrela, pinguino edo bale senti gaitzke bat-

batean. Edo iceberg, edo itsasoan ondoraturiko ontzi zaharra. Pertsonaien barne paisaien eta pertsonaiok inguratzen dituen paisaiaren artean antagonismoa bilatzen ere aritu da zenbaitetan idazlea, barne-barnetik sortzen diren sentimenduen latza azpimarratze aldera.

Urtzea zenbaitetan gainezka egitea da, eta liburu honen irakurle bakoitzari dagokio zer nahiago duen erabakitzea, izoztea edo urtzea, idazleak ez baitio alde horretatik mezu moralez beterik ematen. Eskertzekoa da. Liburuaren amaiera da agian harrigarriena, azken uneko orrialdeek irauli egiten baitute istorioaren pertzeptzioa, bai egoeraren, bai narratzailearen aldetik. Izango da amaiera hori bereziki eskertuko duenik. Goioren bidaia inizatikoa bukatu nahiaren eta ezinaren lekuko pribilegiatu bilakatzen gaituen liburu ederra eta mamitsua da Lagun izoztua hau. Norberak erabaki dezala bidaia hori bukatu ote den.”

Amagoia Iban / Euskaldunon Egunkaria, 2001-12-08

Erabilitako iturriak

Wikipedia

https://eu.wikipedia.org/wiki/Joseba_Sarrionandia

https://eu.wikipedia.org/wiki/Lagun_izoztua

Kritiken hemeroteka

https://kritikak.armiarma.eus/?page_id=4003&non=libu_i&tes=lagun%20izoztua

Eider Rodriguezen tesia

http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Eider_Rodriguez_TESIA.pdf

Txalaparta

<https://www.txalaparta.eus/es/libros/lagun-izoztua>